# EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN AZKEN ALDI HONETAN

2020.12.18 > 2021.03.21



Gasteizko Bideo-Musika Jaialdia. 1985-1990
Festival de Vídeo-Musical de Vitoria-Gasteiz. 1985-1990

Donostiako Bideo Jaialdiaren itxierarekin, eta Gasteizko Ikusager produktoraren laguntzarekin (Maite Ruiz de Austri eta Iñigo Silvak koordinatua), antolatzaileek bideoentzako topaleku bat mantendu nahi izan zuten; asmo horretan, Gasteizko Jesús Ibañez de Matauco kultura zinegotziak harrera egin zien hirian. Lehiaketa hutsa izateaz haratago, mahai-inguru eta proiekzioen bidez, jaialdiak estatu mailan sortuz zihoazen lan bideografikoak ikusarazteko elkargunea izan nahi zuen, baita nazioartetik zetozenak ere. Lehen urteko arrakastari esker, Diego Manriquek eta Araba Saudita batzordeak bigarren edizio bat antolatu zuten. Edizio horretan, lehiaketa estatu osora zabaldu zen eta bideoa euskal eszena artistikoan finkatzeko apustua ere gauzatu zen, Tolosako Bideoaldia (1986-1990) norabide horren lekuko izanik. 1978tik aurrera ageriagoa izan zen Ipar Amerikako eta Europako eraginak bertaratzeko asmoa, baita telebista-plataformekin eta bideosorkuntzaren formazio eta industriarekin harremanetan jartzeko borondatea ere. Bestetik, Ikerketa eta Teknologia Berrien Udal Zentroa (CINT) sortu izanak, eta Manuel Palaciok jaialdiaren zuzendaritza hartzeak, indartu egin zuten 1990eko hamarkadan iraungo zuen proiektu baten jarraipena eta egiteko modu berriak bereganatzeko gai izango zen hizkuntzaren aldeko joera.

Dena den, bideo-musika jaialdi baten bidez 1980ko hamarkadako kultura bisualera hurbiltzeak galdera kritikoak planteatzera garamatza. Esaterako, zein izan zen bideoak instituzioekiko mantentzen duen dependentzia? Orduko herri-kulturaz zer kontatzen digute bideoklipek, eta horien letra, adierazpen edo erritmoek? Non zeuden emakumeak testuinguru horretan? Zer ari zen gertatzen Gasteizen jaialdiak arrakasta izan zezan? Nola lan egin dezakegu arte ederren kategoria estetikoetatik kanpo geratzen diren materialekin? Nola berreskuratu iraganeko oroimen bisuala eta gorputzetatik igarotako emozio eta esperientziak? Edo, nola azaldu jakin-nahi horiek guztiak ikusizko diskurtso batean?

Ikerketa ildo horiek zeharkatzen dute *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan*. Orduko irudiak, hizkuntza eta terminoak, arrasto materialak, musika eta testuinguruko gorputzak eta ahotsak bildu nahi izan izan ditu erakusketa honek; Jaialdiaren hasiera hartu zuen polifoniari «hitz egiten uzten» dioten aztarnak.

Erakusketarekin batera, Artiumek Marivi Ibarrola kazetari eta argazkilariaren argazki multzo esanguratsu bat biltzen du. Irudi horiek lehiaketako oroimenetara eta bertan izandako musikari, publiko eta epaimahaiaren gorputzetara hurbiltzen gaituzte.

Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektuan parte hartu duten guztiei, Pilar Aróstegui Udal Artxiboari, Montehermoso Kulturuneari, Gasteizko Kultura Sailari eta Sancho el Sabio Fundazioari.

Proyecto producido en el marco del programa
KOMISARIO BERRIAK
programaren esparruan ekoitzitako proiektua

Artium
Arte Garaikidearen
Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco
de Arte Contemporáneo
artium.eus

Frantzia kalea / Calle Francia 24
01002 Vitoria-Gasteiz

Artium

EUS

Gasteizko Bideo-Musika Jaialdiko lehen sei edizioetara (1985-1990) hurbiltzen da *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan* erakusketa; 2020ko Komisario Berriak deialdian hautatua. *Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002* aldian erakusketaren kronologiarekin bat egiten duela, kasu-azterketa honek 1980ko hamarkadako euskal testuinguruan garatu ziren praktika eta kategoria kulturalak berrikustea du helburu.

## EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN...

Bideoak euskal eszena artistikoarekin lotura jarraitua izan zuen 1972ko Iruñeko Topaketen ostean. Hurrengo hamarkadan, erakunde eta jaialdiak medioa barneratzen hasi ziren, eta baita horrek zekarren eztabaida, sortze prozesuak eta gogoetak ere. Horren lekuko litzateke Guadalupe Echevarriak koordinatu zuen Donostiako Bideo Jaialdia (1982-1984). Hala, irudi elektroniko, monokanal eta mangnetikoek artea burutzeko aukera berriak ekarri zituzten: 1979an tokiko irudi deskontestualizatuak ematen zituzten Doña Casilda parkean zintzilikatu ziren telebistetatik, Gasteizko I. Bideo-Musika Jaialdiko bideoak —*Sarri Sarri* dantzatzen zen edozein tabernetako eszenak erakutsiz— proiektatzen ziren aretoetaraino.

Bestalde, 1981ean MTV telebista-kate estatubatuarra sortu zenetik, musika-bideoak modako elementu bihurtu ziren: industria diskografikoak bultzatzen zituen produktu mediatikoak. Euskadiren kasuan, lotura hori kontrako ordenan gorpuztu zen: bideoaren medioak balio kontsumistekiko independentzia bizi izan baitzuen hastapenetan. Modu horretan, bideoak eta hark ahalbidetzen zituen aldaera tekniko eta formalak gai izan ziren aldaketa erradikalaren alde jo zuten kontrakulturaren sentsibilitate eta estetika barneratzeko. Irudiaren eta egiazko erreferentziaren, iraganaren eta orainaren, pertsonaiaren eta interpretazioaren arteko mugak ezabatu egin ziren, eta sortutako irudia bihurtu zen errealitatea. Hori izan zen bideoa: euforiaz beteta eta iragan hurbilarekin erreta zegoen gazteriak mundu alternatibo bat irudikatu ahal izateko bitartekoa.

Beraz, Euskadin izan zuen gizarteratzeagatik bideoa medio aproposa gertatzen zaigu 1980ko kultura bisualera hurbiltzeko. Gainera, formatuak izan zuen posizio zailetik lan egitera behartzen gaitu. Izan ere, bideo-lanak tradizio piktoriko eta eskultorikotik urrun geratzen ziren eta, aldi berean, ez ziren zinema eta telebista esparrura egokitzen.

## ... AZKEN ALDI HONETAN

CAS

La exposición *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan*, seleccionada en la convocatoria Komisario Berriak 2020, es un acercamiento a los acontecimientos desarrollados en las primeras seis ediciones del Festival de Vídeo-Musical de Vitoria-Gasteiz (1985-1990). Enmarcada en el periodo cronológico de *Zeru bat, hamaika bide. Prácticas artísticas en el País Vasco entre 1977 y 2002* funciona como caso de estudio para revisitar las prácticas y categorías culturales desarrolladas en el contexto vasco de la década de 1980.

## EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN...

El vídeo mantiene una relación intermitentemente continua con la escena artística vasca desde aquellos Encuentros de Pamplona de 1972. Una década después, instituciones y festivales comenzaron a aceptar un medio que buscaba su propio territorio de creación, discusión y reflexión, como testimonia el Festival de Vídeo de San Sebastián (1982-1984) coordinado por Guadalupe Echevarria. Las posibilidades que ofrecía la imagen electrónica, monocanal y magnética plasmaron en pulgadas distintos modos de hacer arte: desde las televisiones que colgaban del parque de Doña Casilda en 1979 emitiendo imágenes descontextualizadas del mismo lugar, hasta las salas en las que se proyectaban los vídeos del I Festival de Video-Musical de Vitoria-Gasteiz en 1985, mostrando escenas de cualquier bar al ritmo de un *Sarri Sarri* ligado al Rock Radical Vasco.

Por otro lado, desde el nacimiento del canal de televisión estadounidense MTV en 1981, los vídeos musicales se convirtieron en un elemento mediático de moda en sí mismo, en productos que alimentaban la industria discográfica. En el caso de Euskadi, dicha conexión se articuló en un orden dispar, posibilitando así que en sus inicios el medio respirara una independencia respecto a los valores consumistas. Con sus infinitas variaciones técnicas y formales, el vídeo fue capaz de asimilar las sensibilidades y estéticas de una contracultura que abogaba por la transformación radical. Era un medio que ofrecía un mundo alternativo, donde la imagen creada era la realidad, unas producciones que eliminaban las fronteras tradicionales entre la imagen y su referencia real, entre el pasado y el presente, entre el personaje y la interpretación. Un proyecto dirigido a aquella juventud eufórica, pero también resentida con el pasado reciente.

Este contexto social, así como la difícil situación en la que quedaban las obras de vídeo frente a, por un lado, la arraigada tradición pictórica y escultórica y, por otro lado, el lugar que ocupaba entre el hecho cinematográfico y las pantallas de televisión, hace que este nuevo lenguaje se presente como una posibilidad para adentrarse en la cultura visual vasca de la década de 1980.

## ... AZKEN ALDI HONETAN

Con el cierre del Festival de Vídeo de San Sebastián, las organizadoras aupadas por la productora vitoriana Ikusager (coordinada por Maite Ruiz de Austri e Iñigo Silva) facilitaron un lugar de encuentro para el vídeo, y fueron acogidas en Vitoria-Gasteiz por el concejal de Cultura Jesús Ibáñez de Matauco. Más allá del apartado de concurso, el certamen generó un espacio donde conocer, a través de mesas redondas y proyecciones en sala, las piezas videográficas que se estaban generando en el Estado y las que provenían del marco internacional. El éxito del primer año posibilitó una segunda edición de la mano esta vez de Diego Manrique y la comisión Araba Saudita, que ampliaría la sección del concurso al ámbito estatal y asentaría la apuesta de la escena artística vasca por el vídeo, arropada también por la inauguración del Bideoaldia de Tolosa (1986-1990). La intención de acercar las influencias norteamericanas y europeas se potenció a partir de 1987, así como el propósito de establecer contacto con la plataforma televisiva y la formación e industria de la videocreación. La creación del Centro Municipal de Investigación y Nuevas Tecnologías (CINT) y el impulso de la dirección de Manuel Palacio al año siguiente reforzaron la inclinación por un lenguaje capaz de absorber nuevos modos de hacer y la continuidad de un proyecto que perduraría en la década de 1990.

Pero acercarse a la cultura visual de la década de 1980 a través de un festival de vídeo musical abre una mirada crítica sobre múltiples cuestiones. ¿Cuál es el grado de dependencia institucional que mantiene el vídeo? ¿Qué nos dicen los videoclips, pero también sus letras, expresiones y ritmos de la cultura popular de la época? ¿Dónde se sitúan las mujeres en ese contexto artístico? ¿Qué estaba sucediendo en Vitoria-Gasteiz para que tuviera éxito el Festival? ¿Cómo trabajar con aquellos materiales que, por no encajar en las categorías estéticas de las bellas artes, han sido dejados de lado por l+s historiador+s del arte y los museos? ¿Cómo recuperar una memoria visual del pasado, pero también las experiencias que pasaron por los cuerpos y las emociones? ¿Cómo exponer estas inquietudes en un discurso visual?

Estas líneas de investigación son las que atraviesan la sala de *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan*. Una exposición que reúne las imágenes, el lenguaje y sus términos, los fragmentos materiales, la música, pero también los cuerpos y las voces que vivieron este contexto. Huellas que «dejan hablar» a la polifonía que acogió los inicios del festival.

Artium acompaña este relato del festival a través de la recopilación de un significativo conjunto fotográfico del archivo inédito de la periodista y fotógrafa Marivi Ibarrola. De esta manera, se amplía el contexto del certamen a través de imágenes que recogen los cuerpos de músicos y músicas, público y jurado, y que acercan la memoria de esta época a la actualidad.

Agradecimientos a las implicadas e implicados en el proyecto, al Archivo Municipal Pilar Aróstegui, al Centro Cultural Montehermoso, al Dpto. de Cultura de Vitoria-Gasteiz y la Fundación Sancho el Sabio.